

Kinpart⁴⁷

www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2010eko
EKAINA





txinpart⁴⁷

www.hartzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hartzaro informatzen	3
Hatzak bete lan.....	12
Ikastolaren eguna	21
Euskararen txokoa	28
Gurasook jakin dezagun.....	32
Gu ere kazetari	38
Nahaste berraste	42

ARGITARATZAILEA

Hartzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

...eta bukatu dugu

2009-10 ikasturtea ere.

Ikasturtean lanean aritu gara buru-belarri, eta konturatu orduko uda ate joka daukagu. Izan ere, lan asko eta garrantzitsua egin dugu guztiok, eta jarritako helburuak lortu ditugula esan dezakegu lasaitasunez.

Gainera ospatu berria dugun Ikastolaren egunean, jasotako fruituez gozatze-ko aukera izan dugu. Ale honetan, ohiko moduan, horren guztiaren testigantza jaso dezakezue, baina horrekin batera bi aipamen egin nahi genituzke:

- batetik, Haurtzaro Dantza Taldeari ikastolak egin dion aitortza ekitaldia. Dantzari hauek ikasturte honetan herriz herri gure ikastolaren izen ona eta dantza-grina ezagutzera eman dute. Jarrai ezazue orain arte bezain ederki dantzan!, eta zaharrenei, zorte on Bartzelonan!
- eta bestalde, SEASKA ETA HAURTZARO ETORKIZUN OPARO. Zoritzarrez, SEASKAko egoera ekonomikoa oso larria da; diru-laguntza murrizketak handia jasan dute. Seaskatik deialdi berezia egin dute ikastola guztietara egoera horren aurrean laguntza eskatzeko, eta gure ikastolak bere aletxoak jartzeko saiakera egingo du. Ikastolaren egunerako aukeratua izan da goiko leloa, eta Xanixtebanetako tabernarako ere bai. Horietan lortzen den diru-sarreraren erdia Seaskarako izango da. Ez dugu beraz oraindik lan guztiekin bukatu eta udan ere izango dugu zeregina!

2010eko uda hau baina, ez da guztiontzat berdina izango, egun tristeak izan baititugu aurtengoan ere; tristeak, ikastola guztiarentzat. Horregatik, gogoan ditugu gure ondotik joan diren ikastolako kideak, eta aurrekoetan bezalaxe, beste guztiok elkarrekin aurrera egingo dugu.

Oraindik ere hatzak bete lan izango dugula jakin badakigun arren, merezitako oporrak iritsi dira, eta Haurtzaro Ikastolak opor zorionsuak opa dizkizue guztioi.

Uda ona igaro!

Ibilaldiak eta ekintzak

Haur Hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH 1	Maiatza	Igerilekura	Uretan gozatu
HH 1	Ekaina	Baserrira	Abereak ikusi
HH 1	Ekaina	Mendira	Lagunekin gozatu
HH 2	Apirila/Maiatza	Liburutegira	Ipuinak entzun
HH 2	Maiatza	Igerilekura	Uretan disfrutatu
HH 2	Maiatzak 6	Irungo suhiltzaileen parkera	Lanbidea ezagutu
HH 2	Maiatzak 11	Donostiara	Zinea euskaraz ikusi
HH 2	Maiatzak 20	Garmendia okindegira	Ogiaren prozesua ikusi
HH 2	Maiatzak 28	Udaletxera	Ibargaingo emanaldian parte hartu
HH 2	Ekaina	Mendira	Egun pasa
HH 2	Ekaina	Hondarribira	Hondartzaz gozatu
HH 3	Apirilak 21	Artikutzara	Ingurunea behatu
HH 3	Maiatzak 11	Zinemara	Filma ikusi
HH 3	Maiatzak 21	Kursaalera	Eraikinak ikusi
HH 3	Maiatzak 27	Musika Txokora	Musika tresnak ikusi
HH 3	Maiatzak 27	Tren Berdera	Bertan ibili
HH 3	Ekainak 10-11	Zarautza	Sozializazioa eta autonomia landu

Lehen Hezkuntza 1-2			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 2	Apirilak 30 Maiatzak 7	Oiartzungo irratira	Irratsaioa grabatu
LH 2	Maiatzak 19	Oiartzunen zehar ibilaldia	Natura aztertu
LH 2	Ekainak 9/10	Sastarrainera	Naturarekin gozatu, autonomia landu, harremanak sendotu...
LH 2	Ekainak 17	EITBra	Komunikabide bat ezagutu
LH 1	Apirilaren 19tik 30era	Beste geletara eta liburu erakusketara	Euskaraz Bizi kanpaina
LH 1	Apirilak 29	Oiasso-Ama Xantalen	Gaia landu
LH 1	Apirilak 28	Ibargain parkera	Gaia landu

Lehen Hezkuntza 3-4			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 3	Apirilak 16	Donostiara	Haizeaz eta artearen lokera ikusi
LH 4	Apirilak 20, 21 eta 22	LH 2. mailara	Irakurketa saioa
LH 4	Apirilak 22	Jantokiko goiko solairura	Juul lehiaketako bozketan parte hartu
LH 4	Apirilak 28, 29 eta 30	LH 1. mailara	Landutako gaia aurkeztu
LH 3	Apirila eta maiatza	Ikastolan eta herrian	Bide heziketa
LH 3 eta 4	Apirilaren 19tik 30era	Jantokiko goiko solairura	Euskaraz Bizi: irakurzaletasuna
LH 3	Maiatzak 20	Mendibilgo txarara	Gertuko ekosistema bat behatu
LH 3 eta 4	Maiatzak 26	Udaletxera	Udalari Eskola Agenda 21eko lanketaren ondorioak azaldu
LH 3	Maiatzak 27	Udaletxera	Ibargain musika eskolaren emanaldia ikusi
LH 3 eta 4	Maiatzak 27	Madalensorora	Xiba, herri jolasak ezagutu.
LH 4	Maiatzak 31, ekainak 1 eta 2	Baratzera	Mailako harremanak sendotu
LH 3	Ekainak 9, 10	Kukuerri. Azkoitiara	Mailako harremanak sendotu



Lehen Hezkuntza 5-6			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 5	Ekainak 14	Pagoetako parke naturalera	6. unitatea landu
LH 5	Ekainak 9,10,11	Gasteiza	Hiri bat ezagutu
LH 6	Ekainak 9,10,11	Etxarri Larrauna	Ekosistemak aztertu
LH 6B	Apirilak 23	Urnietara	Bote luzeko topaketa
LH 6	Maiatzak 21	Ikastolara	Idazle batekin elkarriketa
LH 6	Apirilak 20	Ikastolara	XXVIII. Lexoti saria ikusi
LH 5	Apirila	Ikastolako laborategira	Esperimentuak egin
LH 5	Maiatza	Ikastolako geletara	Bide heziketa (2 saio)
LH 5-6	Maiatzak 26	Udaletxera	Udalari agenda 21eko lanketaren ondorioak azaldu
LH 5-6	Apirilak 22	Ikastolara	JUUL bozketa: irakurzaletasuna bultzatu
LH 5-6	Maiatzak 6	Ikastolara	Irakurzaletasuna bultzatu: poemak irakurri eta entzun
LH 6	Apirilak 30	Hernanira	XXX. Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketan parte hartu
LH 6	Maiatzak 27	Madalensorora	Bertsolaritza jaialdia

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH 1	Apirilak 16	Madalensorora	Herri kirolak praktikatu
DBH 1-2	Apirilak 20	Ikastolan	XXVIII. Lexoti saria ikusi
DBH 1-2	Apirilak 30	Hernanira	XXX. Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketan parte hartu
DBH 1	Maiatzak 18-20	Ikastolan	Tabakoaren kontsumoari aurre hartzeko saioetan parte hartu
DBH 1	Ekainak 3	Ikastolan	Alaia Martin bertsolariaren bisita
DBH 1-3	Ekainak 7-10	Herrian zehar	Bide heziketa
DBH 1	Ekainak 8	Penadegiko araztegira-Arrietako ur depositora	Uraren ibilbidea ikusi
DBH 1	Ekainak 16-17-18	Barria (Araba)	Ikasturte amaiera dela eta disfrutatu eta gozatu
DBH 1-2	Apirilak 22	Ikastolan	JUUL bozketa: irakurzaletasuna indartu
DBH 2-4	Maiatza	Ikastolan	Drogomendekotasunaren prebentzio tailerra
DBH 2, zientzi tailerreko ikasleak	Maiatzak 13	Oiartzunen	Oiartzun ibaiaren azterketa
DBH 2	Ekainak 8	Ernioko kobazulora	Espeleologia praktikatu
DBH 2	Ekainak 16-17-18	Espejora (Araba)	Zikloari amaiera polita ematen
DBH 1-2-3-4	Maiatzak 26	Udaletxera	Udalari Eskola Agenda 21eko lanketaren ondorioak azaldu
DBH 3	Martxoak 24	Hondarribira-Hendaiara	Herria bisitatu eta Abbadia gaztelua ezagutu
DBH 3-4, frantseseko ikasleak	Apirilak 25-maiatzak 2	Bretainiara	Trukaketa egin
DBH 3	Maiatzak 11	Errenteriara	Arrauna praktikatu
DBH 3	Maiatzak 14	Ikastolan	AESLEME taldekoekin hitzaldia
DBH 3-4 (teknologiako ikasleak)	Ekainak 8	Ikastolan	Robotika: Goratz Gezala ikasle ohiaren aurkezpena ikusi
DBH 3	Ekainak 16-17-18	Gorlizera (Bizkaia)	Ikasturte amaiera dela eta disfrutatu eta gozatu
DBH 4	Martxoak 17	Ikastolan	Orientazioa: Batxilergoen aurkezpena
DBH 4, Biologia-geologiako ikasleak	Martxoak 18	Iruna	Plaiaundira bisita
DBH 4	Martxoak 22	Oiartzora	Amaia Lakarekin orientazio saioa
DBH 4	Ekainak 14-15-16-17-18	Coma-rugara (Cataluniara)	Ikastolako ibilbideari amaiera eman



Urteko sarituak

ARRAUNA

Peio Kazabon Gipuzkoako txapelkun ordean bateletan;
Peio Kazabon Kontxako estropadan bateletan txapelketa;
Peio Kazabon eta Jon Cortes Gipuzkoako ligan hirugarren.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Maialen Ibargoin eta Amaia Ostolaiz A kategoriako Gipuzkoako 3.ak.

JUDO

Maddi Puy Gipuzkoako txapelketa (Hernanin) txapelketa;
Eneko Intxausti 30kg azpiko alebiletan 1. saria;
Peru Ruiz de Azua 1. saria;
Izaro Idarreta 1. saria (nesken taldea);
Jon Asensio 2. saria; Uxue Oiarbide 3. saria;
Haizea Urkia 3. saria;
Gorka Aduriz Euskadiko txapelketa.

KENPO KAI

Ekaitz Benitez Euskal Herriko Konbalean 1. eta Kata-teknikan 2.a;
Naiara Benitez Euskadiko txapelketa, kata teknikan, defentsa pertsonalean, kombate al puntu-n eta kombate semicontacto-an;
Josu Jimeno Nafarroako bigarrena;
Emilio Martinez Euskadiko txapelketa.

SAMBO

Izaro Idarreta Gipuzkoako txapelketa, alebiletan, 1.a

PILOTA

Oier Sarasti Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa binakakoan;
Andoni Ugalde banakako trinketean Gipuzkoako txapelketa eta Ortuellako txapelketa;
Beñat Trigo Arraguako txapelketa.

FUTBOLA

Ibai Kortabitarte, Unai Lopez, Aitor Mitxelena, Imanol Martin, Lander Pikabea, Manex Arruti eta Haritz Uribe: Gipuzkoako txapelketa infantil kategorian.

SASKIBALOA

Aitor Alberdi Gipuzkoako txapelketa;
Karen Muñoz Gabonetako torneoan bigarrena.

JOCKEY IZOTZ GAINEAN

Jagoba Zapirain Espainiako 11 urte azpiko txapelketa urrezko saria (Txuri Urdin).

IGERIKETA

Aitor Sagastuy 100, 200 eta 4x100 bizkar estiloan Euskadiko txapelketa.

SURF

Etham Eiguren Gipuzkoako txapelketa.

XIBA JAIALDIA: HERRI KIROLAK

DBH 3A gelako ikasleak Gipuzkoako txapelketa.

SOINU ZAHARRA / AURRESKUA

Naroa del Río Gipuzkoako txapelketa (Legazpin) A sailean 2. postua;
Udane Galardi Gipuzkoako txapelketa A sailean 3. postua;
Izar Aizpuru B sailean Gipuzkoako txapelketa;
Udane Eskudero Gipuzkoako bederatzigarrena.

Aritz Olarte Gipuzkoako txapelketa;
Eneko Iparragirre Gipuzkoako hirugarrena;
Ekain Susperregi Gipuzkoako zazpigarrena.

LITERATURA

Olatz Irazoki, Ander Barkin, Ekain Fraile, Maider Castaño, Xuban Martiarena, Izaro Idarreta, Maialen Elorza, Iraitz Mateo, Enara Iragorri, Itsaso Aldai, Itsaso Aristondo, Uxue Agirre, Olaia Sanchez, Amaia Perez, Izaro Toledo, Udane Loidi, Mirari Agirrezabala eta Estitxu Cruz.
Oiarzungo Udaleko 2009 Prosa eta Poesia lehiaketa saridunak.

Uxue del Río eta Irati Huitzi:
Gipuzkoako Idazle gaztea lehiaketa: narrazioan 3. saria eta 1. saria narrazioan eta 2. saria poesian, hurrenez hurren.
Maialen Elorza, II. Elkar ilustrazio eta ipuin lehiaketa bigarren saria.
Eluska Leibar eta Itsaso Uitz finalista.

Uxue Agirre: Jauriaritzak antolatutako Urruzuno saria, poesian.

BERTSOLARITZA

Maddi Ibarguren, Iraitz Mateo eta Itsaso Uitz
XXVIII. Lexoti saria;
Iraitz Mateo, Beñat Oiarbide, Aitzol Salaberria eta Jon Otegi,
Gipuzkoako eskolarteko
XXX. txapelketa finalistak.

MUSIKA

Ane Cruz
Gipuzkoako piano lehiaketa: 1. saria;
Izaro Idarreta 2. saria.
Amaia Cortes, Garazi Lizaso, Alazne Cruz eta Joseba Bert
Andoaingo piano topaketak: urrezko sariak.
Maddi Puy eta Irati Zabala zilarrezko sariak.

Oarsoaldeako SMS lehiaketa

Naiara Benitez, txapelketa

ESKUTTUN I. ANTIPIROPO LEHIAKETA

Beñat Oiarbide, txapelketa

Eskola-agenda 21

Lago lehiaketa,
Lide Ibarguren txapelketa



28. LEXOTI SARIA

28.a ere iritsi da. Pixkanaka zahartzen ari da Lexoti saria. Aurtengoa 28. urtebetetzea izan du eta ikasleek ohiko ilusioaz hartu dute ospakizuna. Hasiera hartako ikasleak, bertsolari txiki handiak, ahaztu gabe, egun ikastolan dabiltzan ikasleen gogoa eta emaria nabarmentzea komeni da, urtetik urtera haziz doana eta geroz eta bertsolari handiagoak sortzen dituen.

Sariketaren egiturak nahiz kalitateak lehengoan darrai. Aurten ere buru-belarri jardun dira Haurtzaro Ikastolako ikasleak idatzizko bertsoen atalean lehian, maila bakoitzeko irabazlea, baina, bakarra izan da. 6. mailan Maddi Ibargurenak eraman du saria, *“Informea-notak jaso dituzu eta zure bizitzako lehenengo KALABAZA bertan ikusi duzu”* gaiarekin. DBH 1. mailan, berriz, Iraitz Mateok irabazi du, *“Bizikleta lapurtu dizute”* gaiarekin; eta, azkenik, DBH 2. mailan bertso irabazleak idatzi dituena Itsaso Uitzi izan da *“Goizean ohetik jaiki eta ispiluari begira nago”* gaiarekin.

Garaileek beren bertsoak abestu eta ondo merezitako saria jaso zuten apirilaren 20ko astearteko sariketan. Entzule finek gogoz entzun eta txalotu zituzten hiru artisten bertso sortak.

Ondoren, bat-bateko saioari ekin zioten bertso eskola-gazteek. Saio bikaina eskaini zuten LHko 6. mailako eta DBH 1., 2. eta 3.eko ikasleek. Agurretatik hasita, era askotako ariketak landu zituzten ordu eta erdiko saioan: lau oinak emanda, bukaera emanda, puntua jarrita, gaia emanda...Txukun egin zituzten beren lanak eta arratsalde atsegina eskaini bertan zeudenei, eta irakasle nahiz ikasle guztiek izan zuten bertsoarekin gozatzeko parada.

Emaitzak ikusita, ez da harritzekoa urtero-urtero bertsozaletasunak gora egitea. Gogorik eta kalitaterik oraingoz behintzat ez da falta. Orain datorren urtearen zain geratuko gara, bitartean lan egiteari utzi gabe.





GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO 30. TXAPELKETA

Erraz esaten da, 30. txapelketa. Eta urtez urte gure ikastolako gaztetxoek parte hartu izan duten txapelketa.

Hasiera hartan parte hartu zuten bertsolari gaztetxo haietako asko eta asko burusoilduta edota ilea argitu-ta dabilta gaur egun plazarik plaza bertso kantuan. Beste batzuk, gazte xeago. Eta tartean, jakina, oiar-tzuarrak ere bai. Zeinek esango zien hasierako bertso-hastapen haietan, amaigabeko bertso mundura doan bidean hara eta hona ibiliko zirenik, irudimena, neurria, doinua, entzulea... lagun zituztela. Eta horrelaxe urtea joan eta urtea etorri. Batzuk hortxe dabilta bertsoa ofizio dutela eta beste asko, berriz, afizio dutela. Bertsoa mingaiean, eta bertsoa bihotzean. Ez dute gustu txarra.

Bestalde, denok dakigun eran, bertsolaritza indarrean dugu. Horixe izango dugu, ziurrenik, gazteak eta zaharrak, emakumezkoak eta gizonezkoak... berdintasunean, euskara hutsean, elkartzen gaituen ekintza bakarrenetakoa. Eta hori guztia kontuan izanda, nola ez dugu bada gure Hezkuntza Proiektuan txertatuko, eta nola ez diogu bada behar duen mimoa eskainiko? Guztia merezi du.

Eta aurtengoari lotuta, 30. txapelketaren berri emanez, gure ikastolako 51 ikaslek parte hartu dute bertso paperetan; eta bat-batean, berriz, bi taldek. Talde horietako batek finalera iristea lortu zuen, eta maiatzaren 28an Lezoko kiroldegian oholtza gainean kantuan izan genituen. Eta txapela eskuratu ez bazuten ere, saio polita irten zitzaizen, gozatu zituzten han geundena belarriak. Zorionak, beraz, Iraitz Mateo, Beñat Oiarbide, Jon Otegi, Aitzol Salaberria eta bertso eskolako irakasle izan duten Karmele Mitxelena. Eta ikastolako gainerako partaide guztiei ere gauza bera, jarraitu animo handienarekin eta eutsi zaletasunari!



ALAIA MARTIN BERTSOLARIAREN BISITA

Alaia Martin bertsolariaren bisita izan dute DBH 1. mailakoek ekainaren 3an. Urtero bertsolarien bat etorri izan da, eta aurtan Alaia Martinen txanda egokitu da. Gustura kontatu ditu ikastolan ikasle zeneko kontuak, bertsoarekin izandako hasierak, eta azkenik, bere bertsoekin txunditu gaitu. Saio polita irten da, eta bai Alaiak berak eta baita bertaratutako ikasle-irakasleek ere gozatzeko aukera paregabea izan genuen.

ETA BERTSO SALTSAN JARRAITU NAHI?

Hala bada, aukera berri horretarako ordenagailua behar duzu, eta Interneten bidez ondoko urrats hauek jarraitu besterik ez duzu egin behar.

Honako hau da helbidea:

<http://bertsolaritza.edumoot.com>

Helbide horretan sartu ondoren erabiltzaile eta pasahitza eskatuko dizkizu.

Erabiltzailea: **haurtzaro**

Pasahitza: **bertsolaritza**

Eta hori egin ondoren, 8 ataletan banatuta dagoen programaren barruan izango zara: sarrera; bertsolaritzaren historia; bertsoaren ezaugarriak; Mihiluzen bezala, bertsoak osatzen; bertso doinuen atala audio eta guzti; errima lantzen; bertsoak neurtzen; bertsoak egiten; eta azkenik, hainbat bertsolari txapelketatako bideoak.

Beraz, zure gogo edo beharren arabera baduzu non entretenitua eta non gozatua.

Eta arazoren bat baduzu, edota galdera-iradokizunen egin nahi baduzu, idatzi zure galdera edo mezua ondoko helbidera: **kobegi@hotmail.com** eta erantzuna gustu handiz emango zaizu.



Eskolako Agenda 21

Etorkizuneko herritarrek hezten


Martxa betean dugu Eskolako Agenda 21 gure ikastolan eta jadanik aurtengo programaren azken fasean sartu gara. Ekintza plana osatua dago eta eskaerak eta konpromisoak bideratuta daude. Orain irailako udalbatzarraren zain gaude; Udalak gure eskaerei emango dien erantzuna ikusi nahi dugu. Guk ere gure herriko arazo eta ekintzetan parte hartu nahi dugulako eta guk ere asko daukagulako esateko.

Eskolako agenda 21eko

Udalbatzarra

maiatzaren 26an egin zena

Maiatzaren 26an egin zen udalbatzarra eta eskaerak eta konpromisoak kargaturik hurbildu ginen udaletxera. Bertan Aitor Etxeberrria alkateak eta hondakin teknikariak, Jon Kortajarenak, adi entzun zituzten gure eskaerak. Eskaerak Atez Atekoaren eta Mugikortasunaren ingurukoak izan ziren, aurrekoak ere ezin ditugulako ahaztu. Eskaera batzuen artean, kutxa marroia bezala, ontzi arin eta kartoia biltzeko ontzi edo poltsa berrerabilgarriak eskatu ditugu herritarrentzat; baita ere hilabete batzuk pasatu ondoren, herritarren artean iritzi galdeketa bat egiteko. Bestetik, lortutako emaitzen datuak ezagutu nahi ditugula adierazi genuen; Atez Atekoaren nondik norakoa ezagutu nahi dugula.




Atez ateko bilketa,

Zer egin da ikastolan?

Ikastolan ere prest gaude Atez Ateko bilketari heltzeko. Gela bakoitzeko edukiontzia egokitu ditugu: marroia (organikoarentzat), horia (ontzi arinentzat), urdina (paper eta kartoientzat) eta grisa (errefusarentzat). Egokitze honek eragin digun gastu ekonomikoari aurre egiteko Udalari eskaera berezia egin dio ikastolak udalbatzarrean. Gainera, Eskola Agenda 21en eskutik urte osoan egin ditugun ekintzekin ongi ikasi dugu hondakinak murriztu eta birziklatzea zein garrantzitsua den, baita konposta egitearen garrantzia ere.

Atez Ateko bilketari hasiera emateko egin zen maiatzaren 2ko hasierako festan parte hartu genuen eta gure ikastolako lanak bertan ikusgai izan genituen.



Bizikleta gordailua martxan,

ikastolara bizikletaz!

Bi urtez landu dugu Mugikortasuna ikastola honetan eta honek eman ditu bere etekinak: maiatzean jarri genuen martxan bizikleta gordailua. Ingurumen batzordeak animatzen zaituzte ikastolara ere bizikletaz etortzera; zuen bizikletak giltzapean eta salbu edukiko ditugu. Honela, ingurumena zaintzearen aldeko apustua egiten dugu eta, era berean, kirola egin eta osasuntsu mantenduko gara.

Bestetik, ezin dugu Xorrolaren erabilera aipatu gabe utzi. Dakienez, DBHko ikasleek eguerdi eta arratsaldeetan etxera joateko erabiltzen dute. Gainera Xorrolaren inguruan udalbatzarrean egin genituen eskaeretako bat bonoaren ingurukoa zen. Alkateak negoziaketetan zebiltzala esan zigun. Beraz, laster gertu izango ditugu bonoak ere.

ARAUDIA

- Ekimen hau LH eta DBHko ikasleei irekia dago.
- Atea 7:45ean ireki eta 8:30ean itxiko da, 12:00etan ireki eta 15:45ean itxiko da (garai honetan bizikleta gordailua zaindua egongo da), eta 16:30ean ireki eta 17:00etan itxiko da.
- Erabiltzaileek bizikleta giltzatuta utzi behar dute eta kaskoa gelara eramango dute.
- Ikastolako ordutegi barruan, eguerdikoa eta ekintza osagarrietakoa barne, ezingo da bizikleta gainean ikastolako eremuan ibili. Garai honetan bizikletaz etortzen denak ikastolako eremuan bizikleta eskuan hartuta eramango du gordailura eta atera ere modu berean egingo du.





HAURTZARO IKASTOLAKO
Mendi Taldea
2009/2010 irteerak

Maitet ditut maitet, gure bazterrak

Haurtzaro mendi taldearekin aurten ere ibilaldi zoragarriak. Ikusi bestela!

Azaroak 15 Biriatu-Ibardin



Urtarrilak 23 Somport (eskiatzera)



Otsailak 21 Arritxulo-Gorrintzulo



Martxoak 14 Gorrintzulo-Haurtzaro
(Oiertzungo birako azken etapa)



Apirilak 25 Ugaldetxo-Urdaburu-Listorreta



Maiatzak 23
Urbasa (bizikletaz)



haur Hezkuntza 1

TXITX ZIZAREA GOSERIK DABIL

Txitx zizarea gosarik dabilela eta, ikastolan bere gosea ase nahian, honetaz arduratuko gara gure hondakin organiko guztiak kubo marroira botaz. Honela, guk botatako dena dena jango du eta potolo-potolo jarriko da. A zer nolako zortea daukan gure Txitxek! Baina guk ere bai! Berak hainbeste jan ondoren egingo duen kaka pilarekin, gure Oiartzungo lore, mendi, baratze eta zelaiak ederrak eta indartsuak egongo dira horietaz gozatzeko. Eman diezaiegun janaria txitx guztiei!



haur Hezkuntza 2

Hiruhileko honetan ere, GUSTUKO EKINTZAK EGIN DITUGU:

- Suhiltzaileen lantegira joan eta kamioian ibili, auto-eskalera igo, barratik ziztu bizian jaitsi...
- Garmendia okindegira joan eta ogia nola egiten duten ikusi. Ondoren, gelan ogia egin eta ogitar-teko goxoa jan.
- Pizzaren maza egin, prestatu eta Joxe sukaldariarekin labean egosi eta hamaiketako ederra jan.

Bai dibertigarria izan dela guztia!





haur Hezkuntza 3

ERLEA

Udaberriaren gaia ikasten ari ginela, konturatu ginen zein beharrezkoak diren erleak, bai landareak ugaltzeko, bai gu elikatzeko. Xabino Lopez etorri zitzaigun nola zaintzen diren erakustera eta Angelak ezti gozoarekin egin daitezkeen pintxo bereziak prestatu zituen, eta dastatu ondoren esan dezakegu ezti gozoa dela.





LH1

GURE HERRIKO NATURA

Ezaqutzen eta qozatzen

Iritsi eta antolatu ginen



Aurkezpena entzun genuen



Lanerako prestatu ginen



Lehen

Hezkuntza

Lan gogorra egin genuen eta...



Jolasteko aukera ere izan genuen





LH2

LH 2. mailakoek Txanelako GORA GUTEN-BERG! GORA MARCONI! gaiarekin komunikabideak landu genituen. Lanketa horren barruan, proiektu bezala, irratsaio bat pres-tatu genuen.

Unitatea amaitu ondoren, Oiartzungo irrati-ra joan ginen gure saioa grabatzera eta komu-nikabide hau bertatik ezagutzera. Oso interesga-rria izan zen! Eta primeran pasa genuen!



LH3


Apirilaren bukaeran bisita izan genuen LH 3. mai-lakook; hamahiru beldarra, hain zuzen ere. Hasieran lupa behar genuen hosto artean ikusi ahal izateko, zentimetro batekoak baitziren. Baina bukaeran zazpi zentimetro arte luzatu ziren, eta zabaleran zentimetroa bazuten. Morera hostoak jaten dituzte soil-soilik. Hasieran zazpi hosto jar-tzen genizkien egunean, baina bukaeran berrogei behar izaten zituzten.

Hamahiru beldarretatik bi gaixotu egin zitzaizkigun eta zoritarrez bat hil zitzaigun. Besteek une honetan aste bat daramate poltsa barruan. Beldar guztietatik baka-rra da emea, zuri-zuria. Arrek, ordea, lerro beltzak dituzte; zebrek bezala.

Beldar hauetatik zeta lortzen da. Begira zeinen zapi politak egin daitezkeen!



Beldarra morera hostoa jaten



Beldarra poltsa egiten



Beldarra eta zetazko poltsa



Zetazko zapi zuria eta apaindu ondoren

ZETAREN		
DATA	NEURRIA	ARRA
10-4-27	1,5 cm	ARRA
10-4-30	0,5 cm	ARRA
11-5-5	3,5 cm	ARRA
11-5-15	3,5 cm	ARRA
11-5-25	4,5 cm	ARRA
11-6-5	8,5 cm	ARRA

Erregistro orria



LH4

Ugalketa

Erreparasoko gaia hasi aurretik UGALKETAREN gaia landu dugu.

Landareen ugalketa, animaliena, gizakiena... bizidunen ugalketa!

Gai interesgarria iruditu zaigu eta asko-asko ikasi dugu.

1. mailako ikaskideek ere NATURAREN gaia zutenez, haiengana joan ginen gure azalpenak ematera. Horretarako INFOGRAMAK prestatu genituen, krokisak bertan marraztu, eta zikloan, kontzeptu mapak eta azalpenak idatzi genituen. Ondoren, aurkezpenetan trebatu ginen: **Nola agurtu.**

Nola adierazi.

Nola ahoskatu.



Hau burutu ondoren, LH 4Akoak LH1Ara, Bkoak Bra eta Ckoak Cra joan ginen gure aurkezpena egitera.



Loreen zatiak, petalo, sepalo, lorezila eta pistiloa... Polinizazioa, ernalketa... Ugalketa zer den esplikatzeko jardun genuen. Irakasle bilakatu ginen egun batez.



LH5

Hiruhileko honetan LH 5. mailako ikasleak elikagai motak eta dieta orekatua lantzen ibili gara. Horrez gain, instrukzio testua ere landu dugu. Gaiaren proiekturako ikasle bakoitzak pintxo bat pentsatu eta bere erreze-ta idatzi du.

Bukatzeko pintxo-dastatze ekitaldia antolatu dugu mailakoen artean.

Honekin guztiarekin pintxo-bilduma ederra lortu dugu. Hemen dauzkazue horietako adibide batzuk.


Prestatzen saia zaitezte, eta on egin dizuela!!!



ITSAS PINTXOA

OSAGAIK:

- Lau ogi xerra
- Antxoa lata bat
- Bi atun lata txiki
- Oliba
- Tipula bat
- Ozpina
- Lau oliba
- Gatza



SANFERMIN

OSAGAIK

- 2 arrautza egosi
- Atun lata bat
- Maionesa
- 4 oliba
- 4 piper gorri
- 4 ogi xigortu



KANELOI RUSOA

OSAGAIK

- Atuna
- Arrautza
- Indioilar bularkia
- Patata
- Moldeko ogia
- Ilar txikia
- Oliba
- Azenarioa
- Maionesa

PRESTAKETA

1. Tipula txikitu.
2. Atun latei oliba kendu eta tipularekin nahastu.
3. Oliba, ozpina eta gatzarekin maneiatu.
4. Ogi xerrak frijitu.
5. Atunarekin eta tipularekin egindako oreka ogi xerretan zabaldu.
6. Olibak xerratu eta antxoekin batera apaingarri bezala jarri.

Nutrizio-ezaugarriak eta bestelako informazioa

Ogiak karbohidratoak ditu eta gorputzak energia edukitzeko ona da. Atunak eta antxoak D bitamina eta fosforoa dituzte, beraz ehunentzako eta gorputzaren funtzionamendu arrunterako onak dira. Tipulak A, B, C eta K bitaminak ditu eta baita magnesioa eta potasioa ere, orduan ona da funtzionamendu arrunterako eta ehunentzako. Olibak eta oliboak koipeak dituzte eta hauek onak dira energia asko ematen digutelako. Gatza gatz mineraletako bat da eta gorputzeko zelula eta ehunentzako ona da. Pintxo hau ona da energia, gatz-mineralak eta A, B, C eta K bitaminak dituelako.

EGILEA: Beñat Azkarate

PRESTAKETA

Lehenengo, ogi xigortuaren gainean arrautza egosia erditik eta goitik zatitu eta gorringoa atera beharko duzu. Ondoren, arrautza egosia bete atuna eta maionesarekin. Azkenik, oliba arrautzaren goiko zuloan jarri, goiko arrautza zatia olibaren gainean jarri txapel modura eta piper gorria olibaren bueltan bufanda modura ipini.

Nutrizio-ezaugarriak eta bestelako informazioa

Arrautzak proteinak eta B bitamina ematen digu. Arrainak (atunak) proteinak, D bitamina eta fosforoa ematen digu. Olibak landare jatorriko fruituak dira; koipeak ematen dizkigute. Piper gorriak A bitamina, B, C eta K ematen digu. Maionesak koipeak ematen dizkigu.

EGILEA: Intza Errandonea

PRESTAKETA

Lehenengo, arrautza, patata eta azenarioa egosten ipini. Ondoren, arrautza, patata eta azenarioa moztu zati txikietan. Jarraitzeko, arrautza, atuna, patata, azenarioa, ilar txikia eta maionesa nahastu. Geroxeago, arrautza, atuna, patata, azenarioa, iltar txikia eta maionesa nahastu ondoren indioilar bularkia bildu kaneloi bat bezala. Bukatzeko, arrautza, atuna, patata, azenarioa, iltar txikia eta maionesa indioilar bularkia bildu. Ondoren, azpian moldeko ogia ipini eta gainean txotx batekin oliba bat ipini.

Nutrizio-ezaugarriak eta bestelako informazioa

GATZA MAGNESIOA POTASIOA daukatenak: patata, oliba, azenarioa. BURDINA daukatenak: iltar txikia. FOSFOROA daukatenak: atuna. A bitamina daukatenak: patata, azenarioa, oliba. B bitamina daukatenak: patata, azenarioa, oliba. C bitamina daukatenak: patata, azenarioa, oliba. D bitamina daukatenak: arrautza, atuna. E bitamina daukatenak: moldeko ogia. K bitamina daukatenak: patata, azenarioa, oliba. KARBOIDRATOA daukatenak: moldeko ogia. KOIPEA daukatenak: maionesa.

EGILEA: Maialen Lekuona

LH6

Agur LH, Gero arte DBH

Kaixo!

Gu LH 6. mailako ikasleak gara eta udako oporren bueltan DBHn hasi behar dugu. Hau da, laster, gure bizitzan “Puntu eta bereiz” garrantzitsua egin beharko dugu DBHra pasatzeko. Etapako zaharrenak izatetik gazteenak izatera pasatuko gara.

Gure ustez, aldaketa honetan ez dugu arazorik izango eta orain bezain ongi ibiliko gara. Lana eginez ongi pasatuko dugu.

Hasteko, ez da izango gure lehenengo aldaketa. Adibidez, LH 4. mailan, irakasleek gure taldeak nahastu egingo zituztela esan zigutenean, denak penaz eta triste geunden, baita batzuk negarrez ere. Baina orain ederki eta pozik gaude lagun berriak egin ditugulako. Heldu den ikasturtean, irakasleak, ordutegia eta funtzionamendua desberdinak izango ditugu, baina ez digu beldurrik ematen.

Gainera, maiatzaren 27an DBHko etaparen aurkezpena izan genuen eta bilera horretan, irakasle batzuk ezagutzeaz aparte, gauza berri asko ikasi genituen. Pozez atera ginen bileratik.

Horrez gain, tutoreek ikasturtean zehar esan izan digute etapa berriari ez diogula beldurra eduki behar, baina bai errespetua. Esan digute lan asko egin dugula eta lanak egunean eramanez gero eta klasean arreta jarritz gero airean eramango dugula kurtsoa.

Hori dela eta, 6. maila ongi bukatuko dugu, udan primeran pasatuko dugu eta irailean gogor eta indartsu hasiko gara.

LH 6. mailako ikasleak

AGUR LH , GERO ARTE DBH

**Azken txanpa gelditzen da
ta gaude udaren gose
LH utzi behar:**

**ene ai zenbat oinaze!
Mate, Txanela ta Gazte
ezin ahaztu hain aise
hauze da 6Ako gelan
omen dagon super klase.
Ikastolara joanta
beti egoten ga hantxe,
azkenin irakasliak
garuna digute ase
gure gelan dagon berbak
esaten du horrelaxe:
agur LH eta
gero arte DBH.**

DOINUA: HABANERA
LH 6. mailako bersolayak





Laburpen

Tentatzailea



Iraitz Mateo
DBH 1



Asmatu nor naizen

FITXA TEKNIKOA

LIBURUAREN IZENBURUA: *Asmatu nor naizen*
IDAZLEA: Beatrice Masine eta Roberto Piumini
ARGITALETXEA: Ibaizabal
SAILA: Ameslari
URTEA: 2006

LABURPEN TENTATZAILEA

Michelek bere bizkar-zorroan maitasun gutun bat aurkitu du, norbaitek asko maite duela aitortzen dio bertan. Mutilak, ordea, ez daki nor den hain hitz politak idazten dizkion neskatila. Berak bere gelako ikaskide bat dela susmatzen du; horregatik, arbelean mezu bat idazten dio nor den galdetuz. Orduan sortzen da bi ikaskideren arteko gutun-joku polita.

Michelek asmatuko ote du zein den bere ezkutuko mireslea? Berak espero duen neska izango ote da?


IRITZIA

Niri liburu hau asko gustatu zait, ez da besteen modukoa istorio guztia gutunen bidez kontatzen baita. Horrek arreta jartzea eskatzen du, izan ere aurreko eskutitzetan kontatutakoaren erantzunak datoz jarraian, beraz, patxadan irakurri behar da xehetasunez ere gogoratzeko.

Gainera, erabiltzen den hizkuntza oso aberatsa da eta pentsarazi egiten du.

Laburbilduz, oso liburu polita da bai ezberdina delako, bai hizkuntza aberatsa duelako.

Irakurtzera animatzen zaituztet!!



Gorka Aduiz
DBH 1

Oskar eta andre arroxa

FITXA TEKNIKOA

LIBURUAREN IZENBURUA: *Oskar eta Andre Arroxa*
IDAZLEA: Eric-Emmanuel Schmitt
ITZULTZAILEA: Miren Artetxe
ILUSTRATZAILEA: Enrique Morente
ARGITALETXEA: Elkar
SAILA: Xaguxar
URTEA: 2008

LABURPEN TENTATZAILEA

Oskar leuzemia duen 10 urteko mutiko bat da eta ospitalean dago bere lagun, Peggy Urdin, Xolomo, Einstein, Krixpeta eta Andre Arroxarekin.

Bertan abentura asko bizitzen ditu eta Andre Arroxak esan bezala, Jainkoari idazten dio egunero. Idazteaz gain, Andreak asmatutako istorioak kontatzen dizkio. Jainkoari idazteak lagunduko al dio? Zer gertatuko zaio Oskarri?

Hori dena jakiteko, irakurri egin beharko duzue.

IRITZIA

Liburu hau oso polita iruditu zait, azkenera arte ez dakizulako zer gertatuko den. Gainera mutikoaren lekuan jartzeko aukera duzu eta hori asko gustatu zait.

Laburbilduz, oso liburu ona iruditu zait alaia delako eta bukaeraraino suspentsea mantentzen duelako. Nire lagun guztiei gomendatuko nieke.

Ukitu, sentitu, sortu, gozatu

Temperarekin harremanetan jartzeko lehenengo modua gorputzaren bidez izan da, azken finean honekin bizituko baitugu pintura bera. Azalean tenperatura ezberdinak, testura ezberdinak... sentituz. Honela, zikintzeari izan daitezkeen beldurrak gainditu eta material honekin ere disfrutatu dezaten laguntzen du. Gorputzaren bidez lortutako segurtasun horrek oinarria emango dio ondorengo prozesu guztiari.

Behin hori guztia bizituta, materialekin lanean aritzeari ekingo diogu. Batetik, kalean bildutako material naturala hartuta (makilak, adarrak, harriak, pinaburuak, hostoak...); bestetik, bestelako materiala (kaxak, kartoizko zilindroak, sokak, arrautza potoak, zapiak, sarea...). Baita arrautzak, makarroiak... ere.

Sortutako guztiari erabilpena ematen saiatzen gara, haurren lana baloratuta eta bitartean, gure txokoak material horiekin hornitzen ditugu: kolorez betetako kortinak, apalak, koilareak, kaxak, koadroak, zintzilikarioak, material eraikigarriak...

Sortze lanetan, modu librean, aritu gara taldean eta baita bakarka ere. Horretarako beste mota batzuetako materialak ere eskaini dizkiegu: ixipiak, esponjak, pintzelak, "rodiloak", baporizadoreak, tanta kontagailuak... Hori guztia aberasteko formen munduan sartu gara, mural erraldoiei dimentsio ezberdinak emanez: sokak, sarea, zilindroak, oihalak...


Kolorez betetako ipuinak ere ezagutu ditugu: *El Punto*, *Lola*, *Elefante margolaria*... Eta bereziki *Frida Kahlo*ren bizitza kontatzen duena. Aurten, gainera, benetako pintura tailer bat ezagutzeko aukera paregabea suertatu zaigu, gurekin dagoen haur baten amari esker. Hara iritsi eta zeinekin egingo topo eta... *Frida Kahlo*ekin! Pertsonaia ezaguna genuen hura eta bere mundu majikora hurbildu gintuen.



Honekin guztiarekin norberak bere modura UKITU, SENTITU eta SORTZEKO aukera izan du eta helburua GOZATZEA izan da.


2 urteko geletako hezitzaileak




Ikastolaren eguna 2010











Tara Garrea
DBH 3

Jon Arretxe Haurtzaron

2010eko martxoaren 17an Jon Arretxe euskal idazle ospetsuaren bisitaz gozatu genuen Haurtzaro Ikastolako DBH 3. mailako ikasleok.

Jakingo duzuen moduan, maila honetako ikasleok urtero-urtero idazle ospetsu baten bisita eduki-tzen dugu, eta aurren, zorionez, Jon Arretxerena izan dugu. Garai batean, urte askotan, Gotzon Garate defuntua etortzen zen, eta Fernando Morillo ere etorri izan da. Baina aurren gure euskarako irakaslearen bitartez, Jon etortzea lortu dugu, eta hori aski ez dela, maila osoak haren liburu eder bat irakurri du, *Xahamaran*. Beraz, talde osoak ezaguna zuen idazlea, eta horrek asko lagundu zigun galderak egiteko orduan.

Bisita oso interesgarria izan zen, gainera, liburu honi buruz asko hitz egin zigun Jonek eta bera oso bidaiazalea denez, bidaia bateko, hain zuzen, irakurri genuen liburuko, lekuetako argazkiak erakutsi zizkigun. Ondoren, galderen unea iritsi zen, eta guztiak gustu handiz erantzun zituen Jon Arretxek. Gainera, berak idatzitako beste hainbat liburu oparitu zizkigun. Nola ez, amaitzeko, gure liburuetan sinaduratxo bat ere egin zigun.

Bere hurrengo bidaiaz ere hitz egin zigun, eta idazten ari den nobelaren sekretutxo batzuk ere kontatu zizkigun.

Beraz, esperientzia oso polita izan da Jon Arretxeren bisita, eta espero dugu berriro ere noizbait berarekin egoteko aukera izango dugula.

JON ARRETXERI BURUZ

• Datu pertsonalak:

Jatorriz bizkaitarra izan arren (Basauri, 1963), Gasteizen bizi izan zen 15 urtetan, eta 2004tik hona Nafarroan bizi da, Arbizon.

• Ikasketa nagusiak, kronologikoki:

Pianoko karrera (Bilboko kontserbatorioan), Euskal Filologiako doktoradutza (Deustuko Unibertsitatean) eta Heziketa Fisikoko lizentziatura (Gasteizko IVEF-SHEEn). Gaur egun matrikulatuta jarraitzen du unibertsitatean (Ingeles Filologian), kontserbatorioan (Kantuan), eta Hizkuntza-Eskolan (Frantsesean).

• Ogibideak:

Hamar urte eman zituen euskarako irakasle Deustuko Unibertsitateko Euskal Irakaslegoan, eta hiru urte Heziketa Fisikoko irakasle EHUKo Irakasle-Eskolan, Gasteizen. 1998tik bere ogibideak honako hauek dira: idaztea, bere liburu nahiz bidaiei buruzko hitzaldiak ematea eta, osagarri gisa, Bilboko Opera Koruan kantatzea.



DBH2



itotiya

**Maiatza etorri da, euria gotti-betti.
Ibaia aztertu nahi eta ezin.
Irtenaldia egin nahi bizikletekin,
iragarpenak zaparrada dio beti.
Maiatzaren lehen astea,
lurraren egarria ez da asea.
Lainoetatik mendira,
azkenik ibaian, jolasera.
Gorde gaitezen babesera,
lur azpiko erraietara.
Bai zera!
Zuloan da ur bera!
Hau bai uraren zikloa,
xelebre eta kaikua.
Gure irtenaldien itotiya,
nork utzi du goiko iturriya irekiya?**

Atzerapenez, uraren kapritxo, DBH 2. mailako ikasle-
ek aztertu beharreko lur gaineko zein lur azpiko uren
ibilbideak egin, egin ditugu; Oartzun ibaiaren ikerketa
zein Ernioko leize-zuloen bisita ere bai, nahiz uraren
beraren laguntzarik izan ez.

DBH4



Arrate Leiola, Uxue del Rio eta Naiara Benitez
DBH 4

Hiruhileko honetan zehar, **sexualitatearen** hainbat faktore jorratu ditugu, hala nola **ideologiak, adina, erlijioa, garaia, ingurumena eta kultura. Guri, faktore horien barruan kultura aztertzea egokitu zaigu. Afrika, Polinesia, Tonga, Lepcha eta Bali herrialdeetako kulturak ikertu ditugu.**

Afrikako sexualitatea aztertzean zenbait tributako informazioa aztertu dugu:

- Zuluaren artean ongi ikusia dago adineko gerlariek neskak gazteekin sexu harremanak edukitzea. Normalean afrodisiakoen bidez eszitatzen dituzte. Baina, ahal izanez gero, haurdun gelditzea ekidin behar dute.
- Hotentoteen tributako emakumeak oso zorrotzak dira beren harremanekin. Gisuen tributako emakumeak, adibidez, beren senarrek harremanak eduki ondoren, ez badira guztiz ase gelditzen, etxoleatik garrasika ateratzen dira bikotearen organo sexuala hilda dagoela adieraziz.
- EDO eta IBO tributakoek koitoa alfonbran egiten dute lurrian egin beharrean, izan ere, sinesten dute lurra kutsa daitekeela eta, ondorioz, gaixotasun gaitzak eta lehorte ikaragarriak sor daitezkeela.
- Swabili tributakoek dantza erotikoa praktikatzen dituzte pelbisa asko mugituz, horrela gerora koitoa egiteko erraztasuna izateko. Baina beste tribu batzuetan, dantza hauek koitoa egunez egin ondoren egiten dira, honek sortutako gaixotasunez libratzeko.
- Afrikan artean ongi ikusia zegoen emakumeek beren senarren lagunekin edota opariak egindako edozein gizonekin harreman sexualak edukitzea.
- Ghana tribuan, ordea, gizon batek berea ez den emakumea arroparik gabe ikusiko balu, segituan zikiratuko luke.
- Emakume bat alargun gelditzen denean, tribu batzuetan senarraren hileta bukatu bezain laster, dantza orgiastikoak egiten dira. Beste batzuetan, ordea, denbora jakin bat igarotzen uzten dute edozein motatako harremanak eduki baino lehen.
- Prostituzioa ez da ia ezagutzen, izan ere, sexua nahiko librea da herrialde gehienetan. Hala ere, behar izanez gero, emakume ezkonduak ere prostituzioa praktika dezakete.



Kultura sexualitatearen faktore moduan



Lepcha, Tonga eta Bali herriak aztertzean ere zenbait ezaugarri ikusi ditugu:

- Lepchan, erromantizismoa eta erakarpen fisikoa ezabatzen dituzte, lasaitzeko bakarrik egiten dute. Hemen ere, neska gazteek koitoa praktikatu behar dute heldutasunera iristeko. Guretzat informazio harrigarriena izan da herrialde honetakoek egutero 10 sexu harreman izan ditzakeela.
- Balin jendeak sexu harremanak normaltzat hartzen ditu. Hemen, fisikoa eta osasun sexuala hobetzeko ariketak sustatzen dituzte, baita pelbisa hobetzekoak ere. Hori bai, emakumeetan estalkia beti presente dago.
- Eta azkenik, Tonagan, ahoa organo arriskutsutzat hartzen dute; kosk edo mastekatzeko balio duena, eta ez maitasuna adierazteko.



Polinesiar kulturean ere hainbat ezaugarri esanguratsu aurkitu ditugu sexualitateari buruz:

- Polinesiar irletan, europarrak edertasunagatik sentitzen ziren erakarriak, eta beste batzuk ikaratuta. Tahiti irlari Sodoma de los mares del Sur izena jarri zioten. Erritoak nerabeen taldeek egiten zituzten; sozialki instituzionalizatuak zeuden. Festak eta errito erotikoak egiten zituzten Oro jainkoaren omenez (ugalkortasunaren jainkoa).
- Erritoetan dantzak, kantuak eta maitasun librearen praktikak sartzen ziren. Misiolariak ez ziren iritsi ulertzera ospakizun hauen osagai erlijiosoa zirela. Hauek Arioiei aurkezten ziren nerabe eskale lizun talde baten moduan.
- Prostituziorik ez zegoen Tahitin europarrak iritsi zirenean, baina hango neskatxen harrera sexuala guztiz ona zen. Kontzientzia lasaitzeko, txuriak neskatxek ordaintzen hasi ziren zerbitzuengatik.
- Neskak konturatu zirenean dohain ematen zituztela zerbitzuak edo abegikortasuna azaltzeko zerbitzuaren ordainetan dirua lor zezaketela, zeruaren gorespen hau aprobetxatzea erabaki zuten eta prostituzioa instituzionalizatuta gelditu zen.

Ikus daitekeen moduan, ezberdintasun nabariak daude herrialde hauetako sexualitatearen eta gurearen artean. Desberdintasun gehienak herrialde hauen garapenean oinarritzen dira, izan ere, sexuak sortutako gaixotasunei aurre egiteko dantzak asmatzea, informazio faltaren eta garapen ezaren ondorio dira.

Badago beste puntu bat ere aipatu beharrekoa: nahiz eta kultura hauek "garatu gabeko herrialdeen" multzo zabalekotzat daukagun, argi dago herrialde hauetako tribu bakoitzak bere kultura duela.





Euskaraz bizi 3. kanpaina

“irakurzaletasuna indartu”



Euskaraz Bizi proiektuaren barruan, 2010eko Nazioarteko Liburu Egunaren inguruan, IRAKURZALETASUNA INDARTU egitasmoa antolatu dugu, apirilaren 19tik 30era.

Helburua haur eta gazteengan irakurzaletasuna suspertzea eta sustatzea da eta bide batez, euskara biziberritzea eta normalizatzea.

HH, LH eta DBH mailetako ikasleentzat antolatu dugun ekimenean, euskarazko literaturarekin gozatzeko beste aukera bat eskaini nahi izan dugu.

Aurten ere erakusketa izan da gune nagusia. Bertan irakurketarako txokoak antolatu dira eta adina kontuan hartuz, azkeneko urteetako liburu gomendagarrienak irakurtzeko aukera izan da.

Gainera, LH 4., 5. eta 6. maila eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleek JUUL kanpainan parte hartu dute. Egi-

tasmo hau Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolatzen du eta irakurketako zaletasuna bultzatzeko urteko proiektua da. Ikasturtean zehar ikasleek hainbat liburu irakurri dituzte eta apirilaren 22an, Nazioarteko liburuaren egunaren bezperan, gustukoena zein izan duten aukeratu dute.

Aurreko guztiaz gain, hamabostaldiaren barruan ekin-tza ugari izan dira: idazlearekin solasaldia, bertsolaritzaren barruan 28. LEXOTI saria, literatur testuak konpartitzea, ipuin kontaketak, poesien irakurketak... eta guztia euskararen alde ikasturtean zehar egin den plangintzaren barruan.



Aurten ere

Buru-belarri lanean

Ikasturte amaierarekin batera hemen gaude Eskuttun taldeko kideak hiruhileko honetan antolatutako ekintzen berri emateko.

Hainbat gauza antolatu genituen apirilaren 19an hasi eta 30ean bukatu zen irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainaren barruan, munduan hain ezaguna den Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatu baikenuen Haurtzaro Ikastolan: liburu erakusketa jarri genuen, Juul kanpainan parte hartu genuen 2006tik aurrera argitaratutako liburu gustukoena hautatzeko...

Euskal Herrian Euskaraz-eko partaideek antolatutako "Euskal Herrian hezkuntza eredu bakarra eta euskalduna" ekimenarekin ere bat egin genuen eta gure laguntza eskaini genuen.

Kontseiluak beste lantxo bat egiteko eskatu zigun, Oiartzungo kaleetan euskararen egoera aztertzea inkesta bat betez: kaleko iragarkiak, udaltzainen argibideak, obretako kartelak, zaborrontziak, auzo berrietako kaleen izenak... euskaraz idatzirik dauden edo ez aztertu genuen eta gustura aritu ginen kalez kale argazkiak ateratzen.

Urtero bezala, askari batekin eta bazkari goxo batekin amaituko dugu ikasturtea eta hurrengo urtean ere, buru-belarri lanean ari zeko prest gaude. Amaitzeko, 6. mailako ikasleei Eskuttunen parte hartzeko gonbitea egiten diegu, ederki pasatzeko aukera paregabea izango baitute.





Kuadrillategi

Eo eooo!!!

Oangun ikasturte bukaera atejoka dakagu, ta nola ez genun ba Txinparten idatziko gure azken agurra? Batzuk jubilatzeke, ta bestik oandikan datorren urteko planak itten, miño denak ilusiyo gaitza dakate urtia ongi bukatzeke ta hortako irriparra abian dakate kuadrillategiri agur san ta udarai hasiera mateko, parrandan ibiltzeke, miño nola ez, kuadrillategin helburu dakagun euskera erabiliz!

Oandikan Arcachonea jun berra dakagu, urteroko legiai jarraituz ta kurtso bukaerako ibillaldiya pendiente dakagu! Asike oandikan gelditzen dia a tope disfrutatzeko eunak! Ta hortako, azken txanpako pilak kargatuakin gaude!

Ta oangun bai, agurra datorren kurtso arte luzatzia gelditzen digu! Hurrengo kurtso arte! Ta gaztiak, animatu kuadrillategira, batzuk zahartu dia, ta aire berriya ber dugu ta!

Ongi pasa udaraaaaa!!!!



Gazte forua

Ai ba lio, aurtengo kurtsuare jun digu.

Ya lau urte pasa dia gazte forua sortu genunetik. Ez tu maten biño gauza pilla bat in ttugu: irteerak, solidaritate kanpañak, tallerrak, ikastaruk, leyaketak...

Eskerrikasko guei laguntza eman diguzuen guztiai, gue solidaritate kanpañatan parte hartu zutenai, bai Etio pian eta baita Perun sumatuko dute gue aportaziyo txikiya, eskerrikasko Ikastolai astezkenetako bille-retako gelak, ordenagalluak... uzteagatik.

Eskerrikasko GAZTIAI zuek gabe ezingo genukelako gazte forua aurea eaman, eta bereziki eskerrikasko gazte foruko ORDEZKARIYAI.

Urte guztiya hortxe eon zazte zuen aisia gazte foruari eskeintzen eta hoi benetan ESKERTZEKUA da. Zuek zazte Oiartzungo gazte forua aurea atera zuten gazte kuadrilla. BIBA ZUEK!!!!!!!

Ez aztu SORTZAILEAK geala, aurtan gañea PINKGORILLAK bihurtu geala.

ZER DA PINKGORILLA????????????? Jakin nahi bazute datorren urtian gurekin etorri bileretara eta zuek e pinkgorillak bihurtuko zazte.

Alaitasuna, ondo pasatzia, dibertigarriyak izatia, sorpresak ematia eta jasotzia, sortzailiak izatia, gazte forua.



Aesleme

(Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal)

Duela 14 urte gutxi gorabehera hasi zen proiektua Euskal Herrian. Hainbat ikastetxetan aritzen da psikologo, erizain edo sendagile batekin batera, bizkar muineko lesioa duen pertsona bat nerabe eta gazteei prebentzioan hezten.

DBH 3. mailatik aurrerako ikasleengana iristen saiatzen dira, istripuak eta hauek ekartzen dituzten ondorioak zeintzuk diren eta zein eragin izan ditzaketan azaltzen.

Bizkar-muineko lesioen arrazoi nagusia trafiko istripuak izaten dira. Zenbait kasutan, trafiko seinaleak ez errespetatzeak ekartzen ditu istripuak eta egoera bakoitzerako prebentzio neurriak ez erabiltzeak dakartza ondoren gazteei azaltzen dizkiegun bizkar-muineko eta garuneko lesioak.

Tetraplegia eta paraplegia izaten dira bizitza osoan sufritzen diren bizkar-muineko lesio nagusiak eta hauekin batera garuneko lesioak ere azaltzen zaizkie.

Nerabe eta gazteei zuzentzen dira adierazteko arriskuak zeintzuk diren eta hauek ez gertatzeko zein prebentzio neurri dituzten eskura. Aldi berean, istripuen aurrean zein neurri hartu behar dituzten jakinarazten diete.

Horretarako, hitzaldian psikologo, erizain edo sendagile batekin batera, lehenengo pertsona bizitu duen pertsona batek parte hartzen du bere esperientzia gazteei kontatzeko eta azken hauen zalantzak argitzeko.

Hitzaldia errealitatean gertatzen diren irudiekin, bideo, argazkiekin... osatua dago, hitz soiletan gera ez dadin.

Mila muxu
Joxan

BI MILA MUXU, JOXAN
GUZTION PARTETIK
GURETZAT HAINBAT GAUZA
EGITEAGATIK
ZENBAT KANTU, OLERKI
ETA IPUIN POLIT
INOIZ EZ ZARA JOANGO
GURE BIHOTZETIK.

Doinua: Astoa ikusi nuen

*Ikastolako ikasleak
Joxantonio Ormazabali esker onez.*



Nerabe eta gazteek hurbiletik horrelako lesioen berri jakitea izaten da helburua eta mezua ahalik eta garbien iristea: GERTA DAKIZUKE.

Gaztetxoek jarduera asko egiten dituzte eguneroko bizitzan eta zenbaitetan, pentsatuz norberari ez zaiola ezer gertatuko, ez dituzte beharrezko neurriak hartzen. Esate baterako, motorrean, txirrindan, autoan, uretara jauziak egiterakoan, kirol arriskutsuak egiterakoan...

Ikasturte honetan, azken urteetan bezalaxe, Haurtzaro ikastolan izan dira AESLEMEko bi kide eta DBH 3. mailako ikasleekin izan dute saioa. Gaztetxoak gaian murgildu ziren, eta hizlariak ere oso gustura aritu ziren beren esku zeukaten informazio guztia jakinarazten eta ikasleentzat erabilgarri izan zedin saiatzen. Azken finean, AESLEMEkoen helburua oso argia da: ahalik eta informazio gehiena zabaltzea, batez ere, jendeak prebentzio neurriak barneratu ditzan.

Alaitz Bergaretxe



IKASTOLAN

Kide berria

Aurtengo ikasturte honetan, udaberriarekin batera, gure artean ostatu hartzeko erabakia hartu duen ezohiko bisitaria daukagu ikastolan. Hori bai, erne ibili beharra dago ikusi nahi izanez gero, eguna erdi ezkutuan pasatzen baitu.


Kokalekua ere berezi samarra du: ez da idazkaritza, gela eta pasiloetan ibili zale, baina egunero bere txokotik, goizean erdi lotan edo berriketan, azken orduan arrapalada bizian motxilak arrastaka, eguerdietan tripa-zorriak sabelean bazkaltzera doazenak, jolaslekuan diabolok dantzatzen dabiltzan zenbaitzuk ederkiz elatatzen ditu; eta zer esanik ez, arratsalde eta eguerdi partean ikastolako sarrera inguruan biltzen diren guraso eta aitona-amonak ere.

Benetan isila da gure laguna. Ez du zapata soinurik ateratzen, tarteka inor ohartu gabe hegan zizare eta barraskiloren baten irrikan ihes egiten du gure artetik. Baina garai honetan ez dauka urrutiegi joaterik, izan ere, bere lumapean berotu beharreko arrautzak baitira bere lehentasun.

Zergatik hautatu du gure ikastolako teilatupea? Ez ote zukeen hobe, bere arbasoen gisara, sastraka artean habia egin eta bertan kumeak haztea?

Gure hegaztitxoa AGIAN Oiartzungo ume eta ez hain umeei deiarar egitera etorria izango da: ea gure ingurua zaintzeko gai garen ikustera, ea Atez Ateko bilketan oiartzuarrok nola jokatzeko dugun aztertzeraz, bide batez bere bizilekuaren aldarrikapena egitera. AGIAN...

Ohartu al zarete nor den gure lagun berria? Oharra: Ale honetan lehen begiradan ikus dezakezue.



Aritz Garra
DBH 1

ZOZOA

Erreinua: Animalia
Phyluma: Chordata
Klasea: Aves
Ordena: Passeriformes
Familia: Turdidae
Generoa: Turdus Linnaeus, 1758
Zabalera: 34 - 38,5 cm
Luzera: 24 - 29 cm
Txitatzea: Jaio eta 3 -4 egun
Habia utzi: 13 egun
Independizatu: 3 aste
Ugaltzen hasi: Lehenengo udaberrian

DEFINIZIOA:

Zozoa soilik erabili ohi da espezie hau izendatzeko. Oso ugaria da Euskal Herrian, gehiago alde atlantiarrean mediterraniarrean baino. Autoktonoa da hemen, espezie egonkorra eta migratzaile partziala. Migratzaile partzialak banako batzuk migratzen dutela eta besteak kumatze-lekuan geratzen direla esan nahi du, baina espeziea banatzen den latitudearen arabera guztiz migratzaile edo ez migratzaile ere izan daiteke.

DESKRIBAPENA:

Dimorfismo sexual nabaria du. Arra beltza da, moko eta begiko eraztun horiarekin; eta emea arrea, kontraste gutxiagoko moko eta begiko eraztunarekin. Gazteak ere bereiz daitezke mendian (Svensson et al., 2001). Neurri ertain-handiko Turdus-a da, hego biribilkatu eta buztan luzekoa, tipikoa basoko espezieetan. 34-38,5cm-ko zabalera eta 24-29cm-ko luzera dute azpi-espezie europarrek. Arrak guztiz beltzak dira; eta emeek burua, gainaldea, hegoak eta buztana arre ilunak dituzte, eta azpialdea argiagoa, gorrixka bularraldean, orban ilunekin. Gazteak eme helduak baino argiagoak dira eta azpialdean lerro laranja, gorri edo gaztain-kolorekoak dituzte. Lehen neguko bana-koek eme heldua gogorarazten dute (Clement eta Hathway, 2000).

ELIKADURA:

Omniborua dela esan daiteke; animaliei dagokienez, intsektu eta oligoketoak dira nagusi, baina arrain eta apoak ere aipatu dira bere dietan (Valverde, 1967). Bere dieta gizakiaren eragindun ingurutan aztertu da,

eta litekeena da zizareen garrantzia baxuagoa izatea inguru naturaletan. Gainera jatorri begetaleko elikagaien kantitateak animali jatorrikoena gainditu ohi du, ondorioz zizare eta intsektuak jaten dituen animalia fruitujale modura defini daiteke (Gutián et al, 2000). Hala ere, animalia jatorria oso garrantzitsua da, beharrezkoa baitute egunero hiru gramo intsektu edo beste animalia-aren bat jatea, beren beharizan proteikoak asetzeko.

Animalia fruitujalea denez, hainbat moldaera ditu: fruitujaleak ez diren beste espezie batzuk baino moko zabalagoa, elikagaien hestean zeharreko bide motzagoa eta potentzialki toxikoak diren metabolito sekundarioekiko jasankortasun altua (Herrera, 2004).

UGALKETA:

Araldian abendu bukaeran, eta bereziki otsail erdi aldera sartzen dira (Noval, 1988). Arrak buztana zabaldu eta posizio bertikalean jartzen du, aldi berean lepoa uzkuertzen du eta bere gorputzak bola beltz baten itxura hartzen du, erdian moko hori-laranja deigarria ageri duena. Honen aurrean lumak harrotzea da emearen erantzuna. Aralditik kanpo arra da dominatzailea eta araldian emea. Arraroak dira arren arteko borrokak.

Kumaldian 3-5 arrautza jartzen ditu, ia beti 4. Euskal Herrian arraroa da apirilaren 10a baino lehen errutea (Noval, 1975). Bi gurasoek elikatzen dituzte kumeak.

KONTSERBAZIO EGOERA:

Zozoa ehizatu egiten da eta gehiegizko ehiza da bere arazo larrienetako bat (Telleria eta Santos, 1982). Bestalde, baso inguruetako sastrakak kentzea ere arazo larria da, zozoa bezala bertan elikatu eta kabiak egiten dituzten espezieentzat, eta mehatxu faktore bat izan daiteke basoko populazio batzuentzat. Kantauriar isurialdean ikusi da zozo dentsitatea askoz baxuagoa dela pinu eta eukalipto birlandaketetan, bertako baso autoktonoetan baino (Carrascal eta Telleria, 1990).



Gwisenitik (Bretainia) Oartzuna Oartzundik Gwisenira

Haurtzaroko 30 familiek Bretainiako beste hainbeste ikasle jaso zituzten etxean martxoaren 22tik 27ra. Gwiseniko 37 familiatan beste hainbeste ikasle oartzuarrek hartu zuten ostatu apirilaren 25etik maiatzaren 2a bitarte.

Helburua: gatzelania/frantsesa ikasteko helburua piztea. Hona hemen kronikatxoa:

“Degemer mat” (Ongi etorri!). Horrela hartu zituzten Gwiseniko eskolan Haurtzarotik bertara joandako 37 ikasle eta 3 irakasleak. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin aurten ere martxan jarritako proiektua da eta Haurtzaroko DBHko Hizkuntzen departamentuak bideratua.

Hasiera, aurten, bretoiek eman zuten. Izan ere, martxoan, zazpi egunetan, gure herrian izan genituen Bretainiako Finisterre departamentuko 30 ikasle eta hiru irakasle. Egun horietan gure ikastolako ikasleekin izan zuten zer ikasia, zertan gozatua, bizitua... Bukaeran, martxoaren 27an, abiatu ziren Bretainiara, pena gaitzarekin; izan ere, ederki pasa baitzuten Oartzunen. Sortutako harremana hain zen ederra eta bikaina ezen negar-saio ederrak egin baitzituzten. Hala ere, oraindik bueltako guztia falta zen eta horrekin etorri ziren guztiak bere onera.

Halaxe bada, apirilaren 25ean abiatu ginen Oartzundik Finisterre departamentura itzulerako proiektua gauzatzerako. Argi geneukan guztiok zein ziren helburu nagusiak:

- Frantsesaren maila areagotzea, ahozketasunari erreparatuz bereziki; klasean gehien lantzen den idazmen eta entzumeneko trebeziez gain, mintza praktika lantzea komunikazio egoera desberdinetan: eskolan, familian, gizartean, aisialdian...
- Frantsesa hizkuntza tresna duen gizarte batean murgilarazi, errealitatea bizi, ikasgelan ikasitakoa praktikan jarri, horiexek lirateke helburuetan garrantzitsuenetarikoa.
- Europar herrialdeen Europa eraikitzeako proiektuan aniztasun linguistikoa eta kulturalak berarekin duen aberastasunaz ohartaraztea, europar izatearen kontzientzia indartzeko.
- Bi herrialdeetako hizkuntzak murriztuak izanik, hauen errealitatearen zuzeneko lekuko izatea, eta elkartasun lokarriak eraikitzea.
- Ikasleen tolerantzia, solidaritatea eta errespetua sendotzea, atzerrian biziko dituzten desberdintasunak ulertzeko.

Guk ere izugarri gozatu genuen bretoien etxeetan, herrietan...



Ondorioz, argi eta garbi esan genezake proiektu honek hezkuntza komunitateko eremu desberdinetan izan duela eragina. Alde batetik, ikasleek hezkuntza lehenengo aldiz egoera errealean erabiltzeko aukeraz gozatu dute, arrotza edo ezezaguna zaionari aurre eginez, mugak gaindituz, eta, horrek guztiak beren garatze prozesuan urrats handia dakar. Beste giza eredu batzuk ezagutzea, eta horiek baloratzea, ikuspegi irekiago eta toleranteago bat eraikitzeko giltza dira eta proiektu honek hori ahalbideratzen du.

Bestalde, hezkuntza murriztuekiko kontzientzia eta elkartasuna bultzatu ditugu; izan ere, geure ama hezkuntzaren egoera antzekoa pairatzen baitu bretoierak. Bidenabar, elkartasun horren ondorioz, hezkuntza batek bizirik irauteko beharrezkoak dituen baliabideak edo urratsak zein diren pentsatzera eraman ditu ikasleak. Gure iparraldeko bizilagunekin ere elkartasun-locak-riak estutzeko ere balioko die esperientzia honek, eta baita komunikaziorako erraztasunak eskaintzeko ere.



Goratz Gezala

**"Irabazlea izateko grina gelditu zait
eta datorren urterako detaile batzuk
aldatuko dizkiot robotari"**

Hogei urterekin bakarrik, Goratz Gezala oiar-tzuarra Deustuko Unibertsitateak antolatutako roboten lehiaketako sailkapenean bigarren gelditu da. Oso pozik dago lortutako emaitzarekin, baina datorren edizioa irabazi nahi duela adierazi du Elektronikako ikasleak.

Martxoaren bukaeran Deustuko Unibertsitateko IX. Euskadiko Mikrobots Lehiaketan Errenteriako Don Bosco Institutuko Elektronika ikaslea den Goratz Gezala (Hautzaro ikastolako ikasle ohia) bigarren sailkatu zen. Gazteak Ingeniaritza ikasleekin neurtu zuen bere abilezia. Orobat, berak diseinatutako robotak, ZT izenekoak, unibertsitarioa ez zen makinaren sari berezia irabazi zuen. Lanbide Heziketako zentroak eskarmentuaren oso balorazio positiboa egin du, txapelketa honetan parte hartzen zuen lehenengo aldia baitzen, eta lortutako emaitza bikaina dela esan du.

Baina hau ez da izan Don Boscok lortutako sari bakarra. ProiekteIBAR lehiaketan Aitor Vitoria eta Asier Arruabarrenaren (hau ere Hautzaro ikastolako ikasle ohia) espioi robot telekontrolatuak lehenengo postua eskuratu zuen eta Alberto Zufiriaren ahotsarekin sei hizkuntza desberdinetan gidatutakoak, hirugarrena.



Aitor Arruabarrena

Goratz Gezala trofeoa eskuan duela

Zorionak!

Noticias de Gipuzkoa-tik hartuta



Buf

Musikako irakasle bezala urte dezente eman arren, gaur egungo gazteekin galduta sentitu naiz erabat. Noraezean, ariketa bat bururatu zitzaidan orain dela egun gutxi. Gustuko taldeen kanta klasera ekarri eta hauek ikasteko aukera eman nien, baina orduan hasi zen nire zorigaiztoa eta haien galderak, noski; <<buf... baina, ze estilotako musika>>, <<euskaraz izan behar du nahi eta nahi ez? Buf...>>

Ezin nuen sinistu, 13-14 urterekin argi ez edukitzea zein talde euskaldun aukeratu!

Gure garaian, duela ez hainbeste portzieto, oso argi genuen! Batzuek musika tradizionala, beste batzuek rocka, mexikanak edota heavya. Gutxi gorabehera beti izaten genituen zinta berberak gure sukaldeko kasette aparatuan bueltaka, A aldea, B aldea... eta buelta berriz ere!

Bigarren saiakera, nire borondate onarekin galdetu nien;<<Zein CD dituzue ba etxeko musika aparatuan?>> <<Buff... Eztakit...>> Hitz itsusi hori berriz ere, bufff...

Tristura sentitu nuen, ez dut ukatuko, baina agian ez naiz ni galduta nabilena, ez?

Xabi Solano





Hibaika arraun elkarte 1987. urteko uztailan jaio zen, Errenteriako Hibaika elkartearen egindako hainbat bileraren ondorioz, herriak arraun talde bat izan nahi zuelako. Haurtzaro ikastolak aukera ederra izan du aurten beren batela eta traineruak ikusi, erabili eta gozatzeko.

Josetxo Arrizabalagak egin digu proposamena eta animatu arraunean aritzeko. Arrizabalaga Pasai Donibanerekin 1986, 1988, 1990 eta 1995en Kontxako irabazlea izan zen eta gaur Hibaikako traineruaren entrenatzailea da.

Hibaikakoen lokaletara iritsi gara eta ez gara bakarrik egon. Talde ederra zegoen bertan guri laguntzeko prest: Eli Pescador (Hibaikako arraunlaria senior mailan), Lierni (Hibaikako arraunlaria), Maika Tameron (Hibaikako senior nesken entrenatzailea), Gorka (Hibaikako infantil/kadeteen entrenatzailea), Unai (lehen Zarauzko eta gaur Hibaikako traineruko arraunlaria), Iker Cortes (lehen Santurtziko eta gaur Hibaikako arraunlaria), Carlos Tameron (Hibaikako patroia edo lemazaina) eta Pedro Macicior (Pasai Donibanerekin 1986an Kontxako irabazlea izan zena eta gaur Hibaikako traineruaren entrenatzailea dena).

Josetxori galdetu diogunean zein den saio hauen helburua honako hau adierazi digu:

Hibaika gure inguruan ezagutzera ematea eta gure harrobirako arraunlari berriak lortzea da helburua. Inguruko gaztetxoek beste kirol bat egiteko aukera izango lukete eta ez futbola bakarrik. Asmoa da, hemendik urte pare batera, nesken traineru bat uretan izatea eta mutilen trainerua ARC2tik ARC1era igotzea.

Gure ikasleak jator aritu dira eta Hibaikakoen iritzia ere horrelakoa izan da. Bat-bateko zuen inpresioa, asteartean eta ostegunean egondako ikasleen inguruan?

Oso pozik gelditu ginen zuen jarrerarekin. Oso ongi antolatuta zenuten dena, puntualak izan zineten eta neska-mutilek gogo handiarekin ekin zioten arraunari.

Gainera oso arraunkera polita zutenak ikusi genituen, eta gaur egun indar handia hartzen ari den kirol honetan etorkizun oparoa izan dezakete. Nik animatuko nituzke lehenbailehen arraunean hastera. Orain 14-15 urte dituzte eta horrela, 18 urtetan arraunean ongi jakingo dute eta, agian, Kontxan jokatzeko aukera ere izango dute.

Animo eta gerturatu Hibaikakoekin entrenatzera!





Sokatira

Munduko txapelketa

Neskak

Euskal taldeek emaitza onak lortu dituzte Munduko Sokatira Txapelketan, Cesenatico (Italia). Domina ugarirekin itzuli dira: zazpi gizonezkoen mailan eta lau emakumezkoen mailan.

Lau domina emakumezkoek

Emakumezkoek lan ona egin dute. Denera lau domina irabazi dituzte: bi zilarrezko eta beste bi brontzezko. Txapelketako bi pisuetan aritu ziren Badaiotz, Beti Gazte eta Sakana: 500 kilokoan eta 540 kilokoan.

Beti Gazteko taldeko partaideak honakoak izan ziren: Paxkual Taberna, entrenatzailea, eta Javier Yanci, prestatzaile fisikoa; eta tiratzaileak, Oneka Zapirain, Maider Zapirain, Oihana Almandoz, Karmele Pikabea, Irati Martiarena, Miren Alkorta, Ainhoa Altzugarai, Nerea Maia, Naiara Altzugarai, Estitxu Almandoz, Karmele Irastorza eta Arantxa Feito.

Batzuk ezagunak, ezta? Ikastolan ditugu, ikastolara etorri dira beren esperientziak kontatzera.

T Nola baloratzen duzue txapelketan egindakoa?

Maider. Txapelketan egindakoa, nola ez, oso positiboki baloratzen dut, tenporada osoan egin genituen tiraldirik onenak bertan egin genituen, motibazio eta ilusio handiarekin joan baikin. Urte osoan entrenamendu plan zorrotza eraman dugu prestatzaile fisiko eta entrenatzailearen eskutik eta horrek bere etekinak eman ditu, txapelketan gozatu egin genuen.

T Atentzioa eman dizuen talderen bat?

M Talde irabazlea, taiwandarrak, dudarik gabe. Talde oriental gehienak bezala, oso diziplinatuak dira, eta tiraldietan perfekzioa erakusten zuten. Gainera, sokatirara dedikatzen omen dira lanbidez. Gure sokatirako tekniketik jakin-min izugarria erakutsi zuten eta adi-adi begiratzen gintuzten entrenamendutan.

T Ikasteko guztia ikasi duzue? Zer falta zaizue?

M Etengabe aritu behar duzu ikasten eta entrenatzen. Sokatira, azken finean, talde lana da, eta taldean funtzionatzen ikasi behar duzu. Teknikak ez ezik, koordinazioa eta erresistentzia ere funtsezkoak dira. Zer falta zaigun? Ba, asko. Lesakarrekin entrenatzen denbora gutxi daramagu eta hemen, kirol gehienetan bezala, ez dago trukorik, talde finko batean entrenatu beharra dago.



T Eta hemendik aurrera zer?

M Nik ere ez dakit. Zortzi urte daramatzat kirol hone-tan eta asko gustatzen zait. Momentuz, Beti-Gazteko taldean jarraitzen dugu. Kirol taldea ez ezik, lagun taldea ere bagara, eta hori izan da saririk onena.

Pozik ikusi genituen ikastolan, beren sentipenak eta emozioak nabarmenak ziren. Munduko txapelketan egonak ziren eta bertatik saria ekarri zuten; mundial batera joatea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula!

Zorionak!



Hautzuzko txapelketa - 2010ko ekaina



Lehen hezkuntza



Ezkerretik hasita:

Koro Uria, Elias Arizmendi, Beñar Kazabon,
Joxan Arruabarrena, Andoni Etxeberria,
Aritz Salamanka, Lupe Mendigutxia,
Agurtzane Zubizarreta eta Karmele Etxebeste.

LH3ko irakasleei

Etkarrizketa

1. Zeintzuk osatzen duzue ziklo hau?

Joxan Arruabarrena, Koro Uria, Elias Arizmendi, Agurtzane Zubizarreta, Aritz Salamanca (Eva Morenoren ordez), Beñar Kazabon, Lupe Mendigutxia, Andoni Etxebarria eta Karmele Etxebeste.

2. Ziklo hau Lehen Hezkuntzako azkena da. Ikaslearen garapenean, zertan datza ziklo honen garrantzia?

Ikasketei dagokienez, etapa baten bukaera da. Bere helburuak ditu. Aurreko zikloetan landutakoaren uzta jasotzen da eta abstrakzio maila handiagoa eskatzen duten hainbat trebetasun eta gaitasun jorratzen dira DBHko etapari begira.



Oso garrantzitsutzat jotzen dugu tresna eta bitarteko ezberdinak erabiliz, ezagupenak, informazioa, bizipenak eta sentimenduak adierazteko komunikazio gaitasunaren garapena; eta baita ere, estrategia ezberdinak erabiliz, arazoei eta egoera ezberdinei, irtenbideak aurkitzeko gaitasunaren garapena. Horretarako, ezinbestekoa da ikasteko eta lan egiteko teknikak ezagutzea eta ohitura egokiak lantzea.

Bestetik, haurren adinari begiratuz, nerabeza-roaren atarian daudela esan dezakegu eta horrek dakartzan aldaketa fisikoek eta izaerazkoek garrantzi handia hartzen dute ziklo honetan. Oso garrantzitsua da norbere ahalmenak eta mugak ezagutzea eta hauek modu egokian kudeatzea; norbera bere buruarekin gustura egotea, eta talde baten partaide bezala bere tokia aurkitzea. Horretan laguntzen saiatzen gara.

3. Ziklo honetako ikasleak zer jarrera eta lan ohitura bereganatzen ditu? Nola?

Lehen esan dugun bezala, ikasteko eta lan egiteko ohitura egokiak bereganatzea da ziklo honetako erronketako bat: ikasle arduratsuak eta autonomoak hezi nahi ditugu. Ikasketak beren ardura direla barneratzen joan behar dute poliki-poliki. Beren denbora eta lana antolatzen eta planifikatzen ikasi behar dute. Sistematizazioa eta diziiplina lantzen joango dira, eta horretarako hainbat tresna eskaintzen dizkiegu: eskola orduz kanpoko ekintzen antolaketa, ordutegia, agenda, karpeta...

Horrekin batera, parte hartzea, erantzukizuna eta hartutako erabakien ondorioen onarpena ere lantzen dugu. Horrela, bai gelan, mailan eta zikloan hainbat prozesu bideratzen ditugu: denon iritziak entzunda, funtzionamendu arauak, arduren banaketa eta hainbat ekintzaren antolaketa adosten dituzte (maila eta zikloko bileren funtzionamendua, liburutegiaren funtzionamendua, jolas garaiko materialaren erabilera, urtebetetzeen ospakizuna, Inauterriak, etab.).

4. Txanela proiektua etapa osoan hedatuta dagoela eta, ziklo honetako ikasleentzat zer ekarpen berri egiten du?

Txanela proiektu globalizatua da. Ziklo honetan Euskara eta Gaztelania oso lotuta daude eta irakasgai horietako unitate didaktikoak

osagarriak direla esan dezakegu. Batean lantzen dena bestean aplikatzen da eta alderantziz edota irakasgai batean gaintetik lantzen dena bestean garatzen eta sakontzen da. Bestalde, proiektuka funtzionatzen da. Ingurunean, Euskarari, Gaztelanari eta Ingelesean ere unitate didaktiko bakoitzeko gaitasunak biltzen dituen eginkizun bat proposatzen da: ipuin bat idaztea, antzerkia, irratsaioak grabatzea, pintoak dastatzea, Euskal Herriari buruzko ikus-izuna...

Gainera ziklo honetan Txanela proiektuak teknologia berriei lotutako ekarpen oso interesgarria eta motibagarria egiten du "txanela.net" proiektuaren bitartez. Unitate didaktiko bakoitzean, testu-liburuan datozenekin lotura duten hainbat jardura proposatzen ditu, IKTen bitartez lantzen direnak bai gelan, eta bai informatika gelan. Jardura hauek, batetik, oso lagungarriak dira lantzen ari garen gaiaren kontzeptuak eta prozedurak modu motibagarri eta ulerterrazago baten bitartez joratzeko eta, bestetik, Informatika irakasgaiko hainbat kompetentzia garatzeko. Honekin batera, osagarri gisa, ikasleen lanak ezagutzera emateko eta konpartitzeko geletako blogak martxan jartzen ditugu.


Hau dena aurrera eramateko geletan behar den tresneria daukagu (ordenagailu, proiektore eta pantailak) eta Ikastolen Elkartek eta zikloan bertan antolatutako formazio saioak izaten ditugu.

5. Zer ezaugarri ditu zikloa osatzen duen irakasle taldeak?


Badira taldean bi irakasle urte mordoxka dararmatenak lanean ziklo honetan, Txanela proiektua oraindik zikloan ezarri gabe zegoenean hasi ziren. Beren eskarmentua oso lagungarria izan da geroago sartu direnentzat. Haien aurretik egindako lanari esker ziklo honen funtzionamenduan sartzea errazagoa izan da besteenentzat. Badira, baita ere, aurreko ziklotik (LH 3 eta 4) etorri direnak eta hauek, Txanela proiektuaren ezagutza ekartzeaz gain, ikasleak nondik datozen badakite, eta horrek mesede egiten dio ziklo batetik bestera egon behar duen jarraipenari. Eta azkenik, DBHko ikasleekin aritu izan dena ere bada eta hurrengo etaparen funtzionamendua ezagutzen duena. Denon ekarpenak dira garrantzitsuak eta talde lana aurrera eramaten saiatzen gara.

Nahaste

BORRASTE



Zer ote du?
Osatu eta margotu.



Hemengo hiru loto berdinek dira.

Hamar zerbitutarien artean da
mota-azki-chaian orban.



↓ Sudokua

2		3	4			8		
	5	9		6				
					5			7
	2			4	9			
	6						5	
			7	2			1	
8			6					
				1		3	8	
		1			3	6		2

9x9-ko laukian hutsik
dauden gelaxkak bete
behar dituzu, 1etik 9ra
bitarteko zenbakiak
idatziz, eta kontuan izanik
zenbaki bakar bat ere ez
dela bi aldiz azaltzen
errenkada eta zutabe
berean, ezta dagokion
3x3-ko laukian ere.



zer bide jarraituko du truck honak
sagarra jan ahal izateko?

erantzuna

2	4	9	5	8	1	7	6
5	7	6	2	1	8	9	3
1	8	5	4	7	3	6	9
8	1	4	9	2	7	5	6
9	5	3	1	8	6	7	4
6	2	8	9	5	8	2	1
7	3	6	5	1	4	9	8
4	7	1	3	9	2	6	5
3	5	8	7	6	5	1	2

Hamahiru urte luze jarrera onean
izan zaretelako gure aldamenean

esan nahi dizuegu azken egunean:
zuen etxera itzuli nahi dizuenean.

DBH4

Hautzaro Ikastola



Goitik behera ezkerretik hasita: Oier Sarasua, Joseba Zabala, Amaia Sasiain, Imanol Garcia, Naiara Benitez, Jon Olamendi, Uxue del Río, Gohaitz Perez, Eñaut Basasoro, Ioritz Izargaray, Etham Egiguren, Mikel Arrue, Eneko Iragorri, Unai Etxeberria.

Bigarren lerroan, ezkerretik hasita: Haizea Claver, Ane Lizarraga, Uxue Martin, Lander Sein, Ainhoa Ibagüen, Adur Lizasoain, Arrate Lolola, Jokin Elizagirre, Ainhoa Cachafeiro, Eneko Aizpuru, Erlaitz Galardi, Hodei Hernandez, Iraia Mendicoa, Jon Gaztelumendi.

Hirugarren lerroan, ezkerretik hasita: Mireia Retege, Iñigo Etxebeste, Irune Arbide, Ibai Lekuona, Irati Cabornero, Andoni Susperregi, Alaitz Olarte, Iris Cejudo, Amaia Perez, Ander Gaztelumendi, Miren Idarreta, Manex Imaz.



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



GABRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabisa - P4 partzela
Ventas de Irún-Auzoa - 20105 IRLN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@oiacom.net

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/296



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065

Polígono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN

☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.L.
BARRIO DE SAN JOSE DE LOS RIOS
C/ SAN JOSE DE LOS RIOS, 10
20180 OIARTZUN (GUZU) 943 491 375

